# GOI-BILERA EKONOMIKOA: Entzun krisiaren biktimei!

**Bilboko Eleizbarrutiko Karidade eta Zuzentasunerako Ordezkaritza, Misioak eta Bilboko Elizbarrutiko Caritasen agiria**

Martxoaren 3an ospatuko da Bilboko Guggenheim Museoan ***Espainia Foro Globala 2014: egonkortasunetik hazkundera*** dalakoa Espainiako Gobernuak antolatuta eta bertan batuko dira politika nazional eta internazionaleko eta enpresa-munduko persona ospetsuak.

AON, BBVA, COFIDES eta DEUTSCHE BANK erakundeek babesten daben topaketa honetan 2014ko Europako eta munduko ekonomiaren giltzen inguruan eztabaidan jardungo dabe.

Partaideen artean, faltan botaten doguz gure herrialdeko hainbeste eta hainbeste langabeturen, desjaubetutako familiaren, behin-behineko lana daukien gazte eta emakumezkoen, pobretasunaren marra gainditu daben familien ahotsa zabalduko leukien beste agente sozial batzuk.

Kristinau alkarte garanez, nahitaez gogoratu behar deutsegu partaideei indarrean dagozan politika ekonomikoek langabezia, pobretasuna, gizarte bazterketa eta gizarte eskubideen murrizketa eragin deutsezala milioika herritarri Espainian eta Europan.

Pobretasuna eta desbardintasuna maila kezkagarrietaraino gehitu dala ohartarazoten dabe Caritasek eta beste erakunde batzuek. Bere salaketak kontuan hartu beharko litzatekez goi-bilera honek babestu nahi dituan neurrien gizarte eraginkortasuna baloratzerakoan.

Herritar eta kristinau lez, derrigorrez eskatu behar dogu hartu daitekezan erabagietan gizakiak berak eta bere eskubideek lehentasuna izan daiela, beti Guztion Ongizateari begira egon behar daben beste interes ekonomiko edo politiko batzuen aurretik.

Guri ez jagoku gaurko munduaren erronkei aurre egiteko proposamen zehatzik eskaintzea baina bai exijitu behar dogula *gizakiaren esanetara dagoan ekonomia,* gotzainek 2011ko Garizuma aldirako Pastoral Idazkian egin eben lez.

Frantzisko aita santuagaz bat egingo dogu otoitzean eta *gizarteak, herriak, behartsuen bizitzak benetan min emoten deutsan politiko gehiago emoteko* (Evangelii Gaudium 205) eskatuko deutsagu Jaunari.

Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

MISIOAK
Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

Cáritas
Bizkaia

# CUMBRE ECONÓMICA: Escuchen a las víctimas de la crisis

**Comunicado de la Delegación Diocesana de Caridad y Justicia, Delegación Diocesana de Misiones y Cáritas Diocesana de Bilbao**

El día 3 de marzo se celebrará en el Museo Guggenheim de Bilbao el ***Foro Global España 2014: de la estabilidad al crecimiento***, organizado por el Gobierno de España, que reunirá a personalidades de la política nacional e internacional, así como del mundo empresarial.

El encuentro, patrocinado por AON, BBVA, COFIDES y DEUTSCHE BANK, pretende debatir las claves de la economía europea y global en 2014.

En la lista de participantes, echamos en falta la presencia de otros agentes sociales que puedan hacer llegar la voz de tantas personas desempleadas, familias desahuciadas, jóvenes y mujeres con empleo precario, hogares que han traspasado el umbral de la pobreza en nuestro país.

Como comunidad cristiana tenemos el deber de recordar a los participantes que las políticas económicas vigentes han ocasionado paro, pobreza, exclusión social y recortes en derechos sociales para millones de personas en España y en Europa.

Cáritas y otras organizaciones alertan sobre el alarmante incremento de la pobreza y de la desigualdad. Sus denuncias deben ser tenidas en cuenta a la hora de valorar la eficacia social de las medidas que esta cumbre se propone respaldar.

Como ciudadanos y cristianos tenemos la obligación de exigir que, en las decisiones que se vayan a tomar, el valor de la persona y sus derechos tengan prioridad ante otros intereses económicos o políticos, que han de estar siempre supeditados al Bien Común.

No es nuestra misión ofrecer propuestas concretas para afrontar los desafíos del mundo actual, pero sí debemos exigir *una economía al servicio de las personas*, tal como reclamaban nuestros obispos en su Carta Pastoral de la Cuaresma de 2011.

Unimos nuestra oración a la del papa Francisco, pidiendo al Señor *que nos regale más políticos a quienes les duela de verdad la sociedad, el pueblo, la vida de los pobres* (Evangelii Gaudium 205).

Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

MISIOAK
Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

Cáritas
Bizkaia